

Ikasturte hasiera da eta berria zara eskolan. Herri eskola denez, 3. eta 4. mailako 12 ikasle dituzu gela berean (3. mailako 7 ikasle eta 4. mailako 5).

4. mailako ikasle batek honako ezaugarri hauek ditu:

- Arreta falta.
- Oso mugitua da, ez da jarrita egoten.
- Ez ditu lanak bukatzen.
- Ez du materiala modu egokian zaintzen edo/eta erabiltzen.
- Animaliak eta teknologia berriak oso gustuko ditu.
- Harremanetan zailtasunak ditu.

Bestalde, ikasle berri euskaldun bat etorri zaizu 3. mailara, Iruñeatik.

Tutore bezala, zein planteamendu eramango zenuke aurrera hilabeteko epean egoera honi aurre egiteko?